



ENRIC MARTI / AP

Negarra. Gas negarrarazleak sarritan erabiltzen dituzte soldadu israeldarrek manifestari palestinarren aurka. Gas negarrarazleak, gomazko balak, eta benetako balak. Hain zuzen ere, benetako bala horiek palestinar ugari hil dituzte, dolu zein amorru negarrak piztuz.



JACK GUEZ / EPA

Al Fata eta Xarm el Xeikh. Jasser Arafatek gidatzen duen Al Fata mugimendu politikoaren adar militarreko kideak, Tanzim-ekoak, dira argazkian ikusten direnak. Atzo, manifestazioa egin zuten Xarm el Xeikheko goi bileraren aurka.

Agintarien batzarretik at, enfrentamendu gogorak berriz ere Gazan eta Zisjordanian

Bi palestinar hil dira eta beste ehun bat lagun zauritu, hiru, behintzat, oso larri

Agentziak / Jerusalem

Israeldar eta palestinarren arteko indarkeria geraraztea da Xarm el Xeikheko bileraren lehentasuna. Hala ere, atzo, agintarien batzarrari jaramon handirik egin gabe, borroka larriak izan ziren berriro ere Palestinako lurraldeetan.

IRAILAREN 28an hasitako oldarraldia nolabait amaitzea da Ehud Barak Israelgo lehen ministroa eta Jasser Arafat nazioarteko komunitateko agintari nagusiekin batera egiten ari diren goi bileraren helburua, baina atzo Gazan eta Zisjordanian gertatu ziren istilu handiak ikusita, ez du ematen herritarrek bide hori hartzeko asmo handirik dutenik.

Hain zuzen ere, istilu larriak izan ziren berriro Gazan eta Zisjordanian 20

bat herritan. Bi hildako eta ehun bat zauritu —hiru hil edo biziko egoeran— utzi dituzte borrokaldi horiek.

Enfrentamendu handienak Rafako muga inguruan eta Zisjordanian Ramala hirian izan ziren; bai batean, bai bestean, istilu gisa hasi zirenak tiroketa bihurtu ziren denbora laburrean eta luze irau zuten.

Hain justu, Rafan hil zuten soldadu israeldarrek polizi palestinar bat. Israelgo iturrien arbaera, Egipto eta Gaza banatzen dituen segurtasun hesian zulo bat egin nahian zebilen hildako polizia, eta aurrera egin zezan eragotzi nahian hil zuten.

Palestinarrek azaldu duteenez, beste 80 lagun zauritu

zizuten soldadu israeldarrek leku horretan bertan.

Lekuko arabera, azken lau egunetako borrokarik larrienak izan ziren atzokoak, Xarm el Xeikheko goi bilera hurbildu ahala, enfrentamenduak leuntzen joan baitziren. Hala ere, batzarra hastearekin bat, berriro gordindu ziren. Israeldarren arabera, palestinarren arteko sektore erradikalenean nahita gogortu dituzte enfrentamenduak, Xarm el Xeikheko goi bilerak porrot egin

dezan. Istiluez gain, atzo hainbat manifestazio izan ziren Gazan eta Zisjordanian, Arafati Xarm el Xeikheko gailurretik alde egiteko eskatzeko.

Aurrez esan bezala, kaltetu

ugari utzi zituzten atzoko iskanbilek. Rafako polizia palestinarraz gain, beste hildako bat ere izan zen: Belenen 14 urteko gaztetxo bat hil zen soldadu israeldarren bala batek buruan jota. Rakel-en hilotatik hurbil gertatu ziren borroka Belenen.

Nabulusen zauritutako bi gazte hil edo biziko egoeran daude, eta Ramalako beste bat ere bai. Halaber, Hebron, Jerikon eta Ajos-ko bidegurutzean oso larriak izan ziren enfrentamenduak, eta palestinar ugari zauritu ziren soldadu israeldarrek botatutako gomazko bala eta gas negarrarazleekin.

Israeldarrek inguratuta eta hein batean setiatuta dituzte Gaza eta Zisjordanian hiri autonomoak, eta horrek palestinarren haserrearengatik du. Era berean, bitkimen kopurua handitzen ari den moduan, palestinarren egonezina ere gora doa.

Istiluak

■ ■ ■ Lekuko arabera, atzoko iskanbilak azken lau egunetako gogor eta larrienak izan ziren

Eztabaida israeldarren bahiketaren inguruan

Agentziak / Beirut

Hezbollah Libanoko talde xiitak herenegun bahitutako israeldarren nortasunaren inguruan eztabaida gogorra dago. Hezbollah buru Hasan Nasralak «Libanon atxilotutako gizona koronel israeldar bat dela», nabarmendu zuen atzo. Nasralaren arabera, «bahiketa izan dela, ezin da esan, zeren berak etorri nahi izan zuen, eta islamaren eskubidea da bera hartzea. Hezbollah buruak

bahitutako israeldarra Elhannan Tennenbaum izena duela eta 54 urte dituela baieztatzeaz gain, «Israelgo inteligentziko polizi bat zela jakin bezain laster harrapatzeko erabakia hartu genuela», azpimarratu zuen.

Negozio gizona

Hezbollah koronel israeldar bat dela dion arren, Israelgo Gobernuak «bahitutako gizona Israelgo inteligentzia-

rekin edo beste elkarteren batekin inongo harremanik ez duela», azpimarratu zuen. Israelgo Gobernuaren aburuz, «Hezbollah egindako ekintza terrorista baten aurrean gaude. Bahitutako israeldarra erretiroan dagoen koronela izan arren, negozio gizon arrunta da».

Libanoko lehen ministro Salim Hossek, aldiz, «bahitutako israeldarren askatasuna negoziatzearen inguruan eskaerarik izan ez dute-

la», adierazi zuen. Hossen aburuz, bahiketa horren erruduna Israelgo Gobernuak da, bere ustez «libanoarrak askatzeko Israeli eginiko eskaera guztiak alde batean utzi ditu. Irtenbide bakarra atxilotutako libanoarrak askatzea da».

Bahiketa horretan bitartekari lanak NBE idazkari nagusi Koffi Annanek eta Kanpo Arazoetarako ministro errusiar Igor Ivanovek egiten ari dira.

Talde islamikoek Intifada Eguna nahi dute

Intifada Eguna urriaren 21ean ospatzea nahi dute talde palestinar ugari, besteak beste, Hamas eta Jihad Islamikoak eta Libanoko Hezbollah talde xiitak. «Urriaren 21k izan behar du krimen sionisten aurkako protesta eguna eta Al Aksa meskita sakratuaren aldekoa», esan dute taldeek argitara eman duten agiri batean.

Xarm el-Xeikheko bileraren aurka protestak

Kairoko unibertsitateetako milaka ikasle elkartu ziren atzo Egiptoko hiriburuan, eta beste milaka herrialde arabiar ugari, Jasser Arafat PANeko lehendakaria eta Ehud Barak Israelgo lehen ministroa Xarm el-Xeikhen egiten ari diren batzarren aurka protestatzen. Israelekin harreman diplomatikoak hausteko eta *Jihada*, gerra santua, egiteko eskatu zuten manifestariek.

Moskuk ere zeresana izan nahi du

Ekialde Erdian bakea lortzeko ahaleginak egingo dituela esan zuen atzo Vladimir Putin Errusiako lehendakariak, baldin eta bere ahaleginak kontuan hartzen badira. Izan ere, Moskuri ez zaio gustatu Xarm el-Xeikheko bilertatik kanpo geratzea. Putinek goraipatu egin zuen Bill Clinton EEBBetako presidentearen lana «bere izen ona jokoan jartzeagatik EEBBetako hauteskunde aurreko kanpaina sasoian».